



Osakidetza

1. abizena:

2. abizena:

Izena:

Jaiotza-data:

Adina

:

**ESKABIDE INFORMATUA, TXERTAKETA-
ESTRATEGIA NAZIONALEAN ESKATZEN
DEN DOSIAREN OSAGARRIA JASOTZEKO,
BESTE HERRIALDE BATZUETAKO
ARAUDIAREN ESKAKIZUNAK BETETZEKO**

IKK

HISTORIA ZK.

A. ESI

Txertaketa-gunea:

B. EGOERAREN DESKRIBAPENA

Ebidentzia zientifikoak erakusten du infekzio asintomatikoaren edo sintomatikoaren aurrekaria duten pertsonak, larritasuna gorabehera, erantzun immune oso ona eskuratzen dutela dosi bakarrarekin, eta ez dela bigarren dosiarekin hobetzen. Beraz, ebidentzia nahikoa dago dosi bakarra emateko aurretik infekzioaren aurrekariak dituzten 65 urtekoei edo gutxiagokoei, Espainiako Estatuko Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren txertaketa-estrategian jasotzen den bezala, eta baliozkotzat aitortzen da Europar Batasuneko txertaketa-ziurtagirietan.

Astra-Zenecaren ondoren Pfizer-en dosi baten pauta heterologoa ere onartuta dago Europako estrategietan.

Hala ere, beste herrialde batzuek aukeratu dute aitortutako txertoen fitxa teknikoetan agintzen diren pautak soilik ematea baliozkotzat.

Baimen informatuaren dokumentu honen helburua da Osakidetza txertoaren bigarren dosia hartzeko aukerarako bide ematea, hala eskatzen dutenei, eskakizun gisa bi dosiak hartu izana egiaztatzen duen dokumentua aurkeztea ezarri duten beste herrialde batzuetara bidaiatu ahal izateko”.

C. ZER ARRISKU DU?

Immunogenizitateari buruzko azterlanek erakusten dute infekzio naturalagatiko aurretiko sentsibilizazioaren ondoren dosi bakarra hartzeak immunitate nahikoa sortzen duela. Txertaketa ezarritako pautekin osatzeko bigarren dosia kontraindikaturik dagoela adierazi ez bada ere, ez da beharrezkotzat jotzen eta hasierako dosiarekin izandako bigarren mailako ondorio berak ager litezke, gutxienez.

Bigarren mailako ondorio horiek are handiagoak dira bai aurretiko infekziorik izan ez duten pertsonen bigarren dosietan, bai aurretik infekzioa izan duten pertsonen lehen dosietan, eta ondorio horiek datoz dagoeneko sentsibilizatutako sistema immunea txertoaren estimulu immunologikoarekin kontaktuan jartzetik.

D. ADIERAZTEN DUT:

- Idatzi bidez jakinarazi dizkirate txertoaren dosi osagarria hartzeak dakartzan abantailak eta desabantailak eta edozein unetan erreboka dezakedala eskabidea.
- Ulertu dut jaso dudan informazioa, eta nahi beste galdera egin ahal izan ditut.
- Europar Batasuneko gure inguruneko herrialdeez bestelako batzuetatik joan-etorrian ibiltzeko beharragatik egiten dut eskaera

- ESKATZEN DUT ETA BAIMENA EMATEN DUT PFIZER-EN (COMIRNATY) EDO MODERNAREN (SPIKEVAX) BIGARREN DOSIA EMATEKO.
- ESKATZEN DUT ETA BAIMENA EMATEN DUT PFIZER-EN (COMIRNATY) BIGARREN DOSIA EMATEKO, AURRETIK ASTRA ZENECAREN (VAXZEVRIA) TXERTOAREKIN IMMUNIZAZIOA JASO ONDOREN.

LEGE-ORDEZKARIA (pazienteak ezintasunik badu):

..... jauna/andrea NAN
zenbakia

Ahaidetasuna (aita, ama, tutorea, etab.):

Pazientearen sinadura _____

E. INFORMAZIO GEHIGARRIA

Egingo den jarduera erabilgarria izan daiteke xede epidemiologikoetarako.
Honen bidez, baimena ematen dut nire osasunaren datu pertsonalak, COVID 19-aren patologiarekin zerikusia izan dezaketenak, erabiltzeko, patologia horren eta/edo nik izan ditzakedan beste patologia batzuen –baldin eta lehen patologia horrek beste patologietan eragina izaterik badu– kausak, diagnostikoa eta tratamendua hobeto ezagutzeko zientzia-ikerketa egin ahal izateko.
Nire datu pertsonalak ez dira inolaz ere agertuko ikerketa-xede horietarako erabiltzen den informazioan, ez eta aurretik azaldutako ondorio horietarako egiten diren azterlan edo argitalpenetan ere.

Data:..... Sinadura.....

LEGE-ORDEZKARIA (pazienteak ezintasunik badu):

..... jauna/andrea NAN
zenbakia

Ahaidetasuna (aita, ama, tutorea, etab.):